iPor todo esto reivindiquemos nuestra posición! Enfermeras, azafatas, modistas... AS... siempre AS... iNo al machismo!



Iniciativa Legislativa Popular:

En guerra contra la pobreza

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria ha elaborado una ILP para reforzar las prestaciones sociales y garantizar el acceso a la vivienda



GORKA QUEVEDO

A la entrada del cementerio de Gaintza, Gipuzkoa, reza la leyenda *Gaur ni, bihar zu*. Hoy yo, mañana tú. Lo mismo sucederá si no se toman medidas para hacer frente al riesgo que cada vez más gente tiene de caer en la pobreza. Una situación de la que nadie está exento. Hoy soy yo, mañana puedes ser tú.

Trabajadores/as pobres

El informe Perspectivas sociales y del empleo en el mundo -elaborado en 2017 por la Organización Internacional del Trabajo, la agencia de las Naciones Unidas para el mundo del trabajo- alertaba de un grave problema global: el empleo de poca calidad crónico, lo que supone grandes cantidades de trabajadores/as pobres. Este hecho nos afecta directamente. La Comisión Europea, en el estudio Empleo y Desarrollo Social, —diciembre de 2016—, advertía de que la pobreza laboral alcanza al 12,5% de los trabajadores y trabajadoras de la Unión Europea. En el Estado Español, según Eurostat, uno de cada cinco trabajadores/ as se encuentra en situación de pobreza.

En Euskal Herria no somos inmunes a este problema. La precarización de las condiciones laborales y los bajos salarios son dos características de muchos empleos. Una parte importante de la clase trabajadora vasca es working poor o trabajador/a pobre. ¿Qué es un trabajador/a pobre en Euskal Herria? Eurostat clasifica un hogar como pobre si su ingreso es inferior al 60% del ingreso medio de los



hogares en su país; en el caso de Hegoalde, quienes tienen unos ingresos anuales inferiores a 8.209 euros.

Evidentemente, es imposible llevar adelante una vida digna con ingresos anuales inferiores a 8.209 euros, es decir, 12 pagas de 684 euros. En esta coyuntura, en 2016, 12.321 personas con ingresos de trabajo tuvieron que recurrir a la RGI (Renta de Garantía de Ingresos) para alcanzar unas cantidades que les puedan garantizar la subsistencia.

Pensionistas pobres

En 2018, las y los pensionistas de Hego Euskal Herria han vuelto a perder poder adquisitivo, por quinto año consecutivo. Hablamos de miles de personas pensionistas, muchas de las cuales cobran pensiones de miseria, por debajo del umbral de la pobreza, siendo la mayoría de ellas mujeres. Pensiones que sufren recortes permanentes vía retraso de la edad de jubilación, recorte de las cuantías de las nuevas pensiones o eliminando la garantía del mantenimiento del poder adquisitivo. Todo fruto de una estrategia de las élites políticas y económicas para favorecer los fondos privados de pensiones. El pasado año, 15.706 pensionistas tuvieron que solicitar la Renta de Garantía de Ingresos en la CAPV como complemento de sus miserables pensiones.

Inmigrantes pobres

Cerca de la mitad (48,7%) de los inmigrantes extracomunitarios de más de 18 años se encuentran en riesgo de pobreza en la Unión Europea, según Eurostat. Hablamos de personas vulnerables que, en la práctica totalidad de casos, han tenido que huir de su lugar de origen escapando de la pobreza, de la guerra o de un futuro sin perspectiva. Personas que, una vez dentro, —en nuestro caso, en Euskal Herria—, encuentran obstáculos como la precariedad laboral y de vida, la pobreza o la exclusión social. Personas, en muchos casos, sin ningún tipo de ingresos, que no tienen otra opción que solicitar prestaciones sociales para subsistir.

Desempleados/as pobres

En marzo de 2018 había en Hego Euskal Herria 163.323 personas paradas. Seis de cada diez personas desempleadas –98.654 personas, el 59,8% – no cobra ninguna prestación por desempleo. Y sólo el 24,1% cobra una prestación contributiva de desempleo. Personas que buscan un empleo y no lo encuentran. Personas cuyo único ingreso son prestaciones sociales como la RGI.

No hacen falta más datos para concluir que una gran parte de la población de Euskal Herria vive en situación de pobreza y exclusión social. Tener un empleo no garantiza tener ingresos suficientes para poder desarrollar una vida digna. Si a esto le añadimos la problemática de la vivienda y la ausencia de políticas públicas que garanticen poder acceder a una vivienda digna, la situación es alarmante para una parte cada vez más numerosa de nuestra sociedad.

Iniciativa contra la pobreza

Con el objetivo de luchar contra la pobreza y la exclusión social, la Carta de Derechos de Euskal Herria ha puesto en marcha una Iniciativa Legislativa Popular (ILP) cuyo objetivo es conseguir un sistema público y social de calidad. La ILP recoge medidas concretas para mejorar la realidad de las políticas de ingresos mínimos garantizados y el derecho al acceso a una vivienda digna. Son dos causas que llevan a que la pobreza sea una realidad cada vez más importante entre colectivos cada vez más amplios.

Gero eta gehiago dira gurean pobrezia egoeran dauden lagunak. Horregatik, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak arazo honi aurre egiteko herri ekimena garatu du. Zure sinadura ezinbestekoa da ekimenak aurrera jarraitzeko.

De aprobarse la ILP en los términos presentados, una persona cobraría en concepto de Renta de Garantía de Ingresos el 100% del Salario Mínimo Interprofesional –858,6 euros en 12 pagas, frente a los 644,49 euros actuales—. Además, la cantidad tendría un aumento adicional del 50% del SMI por cada persona que compone la unidad convivencial, entre otros cambios positivos en la RGI. La ILP también aborda las Ayudas de Emergencia Social y la problemática de la vivienda, donde se propone reconocer de manera efectiva el derecho a la ocupación legal de una vivienda digna y de calidad en alquiler social.

Esta ILP se ha presentado en los Parlamentos de la CAPV y de Navarra, instituciones que tienen competencias para adoptar políticas que protejan a la ciudadanía en estas materias. Solo hace falta voluntad política para ello. Para que la iniciativa salga adelante en el Parlamento Vasco se necesitan un mínimo de 10.000 firmas; en Navarra, alrededor de 5.000, el 1% del censo electoral.

Tu firma es imprescindible para esta guerra contra la pobreza.

berrialagun egin nahi duzu?

ELAk bat egin du BERRIA egunkariaren 'GEROA ZUGAN' kanpainarekin, eta konpromisoa adierazi bere jardun eremuan BERRIAlagunak egiten laguntzeko.

BERRIA da euskaraz Euskal Herri osorako egiten den egunkari bakarra, eta gure hizkuntzak eta euskaldunok BERRIA behar dugu. Bere hastapenetik, ELAk BERRIAri bere babes osoa eman izan dio, euskararen garapenerako tresna ezinbestekoa delakoan, eta horrela jakinarazi egiten diogu gure afiliazioari.

Beraz, BERRIAk bere 15.urtemuga ospatuko duena probestuz, ELAren parte zareten guztiek aukera izango duzue bi hilabetez BERRIAlagun Harpidedunak izateko, DOAN, horrek dakartzan abantaila guztiekin:

- Bi hilabetez, BERRIA egunkaria etxean edo kioskoan jasoko duzue asteburuetan, DOAN.
- Astegunetan ere egunkaria eskura izango duzue PDF formatuan, nahi duzuen euskarritatik irakurtzeko.
- Zerbitzu esklusiboak izango dituzue berria.eus-en eta BERRIA aplikazioan.
- Opari eta sarreren zozketetan parte hartu ahal izango duzue astero; gonbidapen esklusiboak jaso, eta deskontu zuzenak izango dituzue komertzio eta aisialdiko zerbitzuetan.

Eskaintza baliatzeko, pauso hauek eman besterik ez duzu:

> Sar zaitez
> berria.eus/geroazuganeskaintza webgunean.

Jar ezazu sustapen kode hau:ELAGZ158

- Osa ezazu eskaera zure datu pertsonalekin.
- 4.- BERRIAko Bezero Arretako kide bat zurekin harremanetan jarriko da egunkaria nola helarazi zehazteko.









PwC

(arkumez mozorrotutako otsoa)



EXPRAI ETA GORKA QUEVEDO

Segur aski ALDA-ren irakurle guztiek ondo ezagutuko dute arkumez mozorrotzen zen otsoaren ipuina. Halako zerbait egiten dute PwC (PriceWaterhouse Coopers) bezalako aholkularitza enpresek, mundu mailan sektore honetan dagoen garrantzitsuenetakoa. Sistema kapitalista basatienaren aurpegirik ilunenaren ordezkari dira, baina, ipuineko otsoaren azpijoko bera erabiltzen dute: arkume mozorroa jartzen dute euren benetako irudia ezkutatzeko.

Berriki "euskal ekonomiaren egoeraren inguruko" txostena argitaratu du PwC-k. Eta bertan sindikalgintza jartzen dute euskal ekonomiak dituen arazoen artean. Hala esaten dute, hitzez hitz. "Enpresari eta sindikatuen arteko ekintza batasun falta da datozen urteetan Euskadiren ekonomiak duen arazo nagusietako bat". Badakizue, bertako patronalak horren gustuko dituen itsas metaforak: "denok ontzi berean goaz, elkarrekin egin behar dugu arraunean..."

Txostenaren aurkezpenera Euskal Autonomia Erkidegoko Industria eta Garapen sailburu Arantza Tapia joan zen. Eta, hain zuzen, hor dago gakoa. Berdin Tapia edo beste edozein arduradun politiko izan. Zein da, azken

finean, PwC bezalako enpresen helburua? Gobernu eta erakunde publikoei, -izugarrizko dirutzen truke, noski-, lan zikina egitea.

Kapitalismo neoliberal bideagabea saltzea da euren zeregina, modu atsegin eta erakargarrian. Eta, horretarako, kanpoko aditu inpartzialaren mozorroa jartzen dute. Arkume jantzia. Burtsan kotizatzen duten enpresa handienak, bankuak, finantza etxeak, espekulatzaileak... Diru gehien dutenei diru gehiago nola lortu erakusten diete. Eta, horretarako, edozerk balio du: irabaziak zerga-paradisuetara desbideratu, politikariak presionatu, bankuen egoeren inguruko txosten faltsuak egin...

Gure baliabide eta eskubide apurrak aberatsenei eman asmoz arkumez mozorrotzen diren otsoak. Hemendik aurrera, artaldearen inguruan bueltaka ikusten badituzue, argi izan: gu jatera gatoz. Euren irribarrearen atzean milaka arkumeren odola dago. Ez gaitzatela engainatu.

"Pentsio bat ere ez 1.080 eurotik behera"

Mikel Novalek -ELAren gizarte politikaren arduradunadio egungo pentsio sistema publikoaren etorkizuna bermatzeko lan baldintza hobeak behar direla

N.I. /G.Z.



Mikel Noval

»-Pentsiodunak borrokan ari dira zahar-sari duinak izateko. Zer dago itxuraz hain oinarrizkoa den eskari honen atzean?

-Pentsioak etengabe ari dira murrizten, hiru bidetatik: berriak urriagoak izango dira –pentsioa kalkulatzeko urte gehiago hartzen dituzte aintzat–, erretiratzeko adina atzeratuko da eta erosteko ahalmena mantentzeko bermea kendu.

2011ko eta 2013ko erreformak dira murrizte prozesu horren adibide. ELAk eta beste organizazio batzuk hainbat mobilizazio deitu genituen, besteak beste, 2011ko greba orokorra. CCOO, UGT eta CEOE Zapaterorekin hitzartzen ari ziren bitartean erretiratzeko adina atzeratuko zela, pentsio berriak murriztu eta egonkortasun faktorea ezarri, ELA kalera atera zen pentsioen alde, eta politika hauek Euskal Herrian erabaki behar zirela aldarrikatzeko.

Pentsiodunen gaurko mobilizazioak erantzun logikoa dira murrizketa horiek izan dituzten eragin sozial zitalei.

»-Zer da ELAren ustez pentsio duin bat?

-Guk proposatzen dugu gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea. Orain gurean lau pertsonatik bat pentsioduna da, eta pobretze orokorra pairatzen ari da. EAEko emakumeen batez besteko pentsioa 822 eurokoa da, eta gizonena, aldiz, 1.448 eurokoa. Nafarroan are txikiagoa da: emakumeena 734 eurokoa eta gizonena, 1.261 eurokoa. Egoera are okerragoan daude alarguntasun pentsioak, urriagoak baitira.

»-Pentsioetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak gehitu behar al dira?

-Noski. Pentsioak iceberg-aren tontorra besterik ez dira, baina benetako eztabaida da aberastasunaren banaketa gero eta injustuagoa. Sakoneko kontua da orain zenbateko diru-sarrerak bermatu pentsiodunei eta hori nola finantzatu.



Eztabaida hau politikoa da, ez teknikoa. Aberastasuna badago, baina erabaki beharra dago ere pentsioetarako baliabideak nondik atera. Zergak ere aintzat hartu behar dira –iruzur fiskalaren jazarpena, errenta altu, enpresa eta kapitalen mesedetan egindako beherapenak kendu...–.

Beste ideia nagusi bat da pentsioen finantzaketa norbere kotizazio sozialetara mugatzea tranpa onartezina dela.

»-Batzuk diote pentsio-sistema publikoa ez dela bideragarria, baina ELAk nabarmentzen du Europako azken postuetan gaudela pentsioei dagokienez.

-Hala da. Euskal Herrian sortzen den 100 eurotik 11 baino ez da pentsioetara bideratzen –aberastasunaren %11,1 biztanleen %24,2arentzat–. Euroguneko batezbesteko maila, aldiz, %13,6koa da. Maila horretara iristeko urtero pentsioetarako 2.230 milioi euro gehiago beharko lirateke –1.416 milioi EAEn eta 814 Nafarroan–.

»-ELAren mezua oso argia da: egungo pentsio sistema publikoari ezin zaio eutsi lan baldintzak hobetu ezean.

-Hori da pentsioen auzian egiten dugun proposamen nagusietako bat. Kalitatezko enplegua sortu eta soldatak KPIz gaindi igotzea. Soldata txarrekin kotizazioak eta pentsioak ere apalak dira. Aitzitik, kalitatezko enplegu gehiago sortzeak kotizazioak eta pentsioak hobetzeko aukera ematen du.

»-Beste eskaririk plazaratu al dugu?

-2011ko eta 2013ko murrizketak bertan behera uztea; lehenago aipatu bezala, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea; Iruñeko eta Gasteizko parlamentuei exijitzea Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurka bultzatu duen herritar legegintza-ekimena onar dezaten, eta estatuan ezarritako murrizketak konpentsatzea; azkenik, pentsio-sistema publikoa indartzea.

»-Giro nahasian bada beti etekina ateratzen duenik... Bankuek negozioa egiten dute arazo handi honen kontura.

-Pentsio-sistema publikoa indartu behar da. Sistema pribatuak ez dira aukera egokia: lehenik, herritar gehienek ezin dute aurreztu, eta ondorioz gutxiengo aberatsarentzako aukera litzateke soilik; bigarrenik, sistema pribatuak planak kudeatzen dituzten finantza-erakundeen negozioa bermatzen du, baina ez gutxieneko prestazio maila edo errentagarritasunik. Pentsio-siste-

Mientras CCOO, UGT y la CEOE acordaban con Zapatero retrasar la edad de jubilación, recortar las nuevas pensiones y el Factor de Estabilidad, ELA salió a la calle para defender las pensiones y que dichas políticas se decidan en Euskal Herria. Las movilizaciones actuales de las personas pensionistas son la respuesta lógica a las nefastas consecuencias sociales de esos recortes.

ma pribatuek dituzten zerga-arintzeak zeharo gutxitu beharko lirateke.

Honek izan behar du ordena: sistema publikoa, negoziazio kolektiboan ezarritako sistema osagarria eta, azkenik, sistema pribatua.

»-ELAk Gizarte-Segurantzaren transferentzia osoosorik aldarrikatzen du...

-Guk nahi dugu gure lan-baldintzak eta pentsioak hemen erabakitzea. Gure eskubidea da. Espainiar estatuko markoan murrizketak egiten dira, eta gainera bake soziala ziurtatzen dute. Hemen, ordea, errealitate sindikal eta soziala ez da berdina.

Bitartean, beste batzutan esandakoa berresten dugu: HEHko instituzioek oraingo eta etorkizuneko pentsiodunei diru-sarrera egokiak bermatu behar dizkiete, eta osatu beharko lituzkete espainiar gobernuaren murrizketekin galdutako sarrerak, 1.080 euroko pentsioa bermatzen dutelarik.

»-Azkenik, zein mezu helarazi nahi die ELAk borrokan ari diren pentsiodunei?

-ELAk uste du mobilizazio soziala ezinbestekoa dela. Aspaldian jo genuen bide horretatik. Beraz, gure erreibindikazioen tankerakoak dituzten guneei babesa emango diegu eta haietan parte hartuko dugu.









Gorka Rodríguez Iza eskarmentu handiko langilea zen; 18 urte zeramatzan zeregin horretan. Zer gertatu zen istripuaren egunean? "Olioaren tapoia askatu zen eta makinak su hartu zuen. Ez dakigu zergatik soltatu zen, Osalanek oraindik ez du txostena egin. Baina oso litekeena da tapoia ez egotea egoera onean eta hori izatea arrazoia".

Ordutik hona buelta asko eman dizkio gertatutakoari. "Horrelako zerbait gertatu arte ez zara konturatzen zein nolako arriskuak dituen gure lanak eta zein garrantzia gutxi ematen zaion lan osasun eta segurtasunari. Esaterako, orain badakigu lanean erabiltzen ditugun makinak ez direla egokiak. Obra zibilean erabiltzen den makineria da, moldatuta eta egokitua, baina ez daude propio pentsatuta egiten dugun lanerako. Gurpilak, adibidez, maiz erre egiten dira, beste funtzio batzuetarako pentsatuak daudelako".

Epaitegian

"Faktore asko daude, -jarraitzen du-. Protokoloak dio sua dagoenean ahal bezain azkar segurtasun maskara jarri behar dela. Horretarako, hegazkinetan bezala, badago mekanismo bat: soka batetik tira egin eta maskara hartu. Istripuaren egunean sokatik tira egin nuen, baina maskara ez zegoen bere tokian. Su bola baten barruan maskara bilatzeari ekin behar izan nion. Izugarrizko beroa sentitu nuen, erreta hilko nintzela pentsatu nuen. Lehenbailehen makinatik ateratzen saiatu nintzen, ateratzeko dagoen ate bakarretik. Hor beste arazo larri bat topatu nuen. Gasolioaren gordailua atearen azpian dago; ateratzeko bertatik pasa behar izan nuen ezinbestean, eta erredurak larriagotu ziren, hori baitzen su bolaren jatorria".

Kasua epaitegian dago. Gorkak borrokatzen jarraituko duela azpimarratzen du. "Ez dut nahi beste inork pasatzerik nik bizi izan dudana.

En 2017 fallecieron 53 personas en el trabajo en Hego Euskal Herria. Además, hubo un total de 32.553 accidentes que supusieron una Incapacidad Temporal. Pero detrás de los fríos datos hay personas con nombres y apellidos que han sufrido en sus propias carnes un accidente laboral. Personas víctimas de la precariedad y de unas condiciones laborales que hacen que expongan sus vidas cada vez que acuden a su puesto de trabajo.



Gorka Rodriguez.

Urtero dirutza irabazten duten enpresak dira, eta lau sosengatik bizitzak salbatu daitezke. Detaile bat da, baina oso esanguratsua. Guk suaren kontrako arropa erabiltzen dugu. Arropa hori enpresak garbitu beharko luke, baina guk garbitzen dugu etxean. Ez digute inoiz azaldu nola garbitu behar den. Erabiltzen ditugun xaboiak edo leungarriak egokiak dira? Garbigailuko edozein programak balio du? Agian arropa horrek suaren kontrako duen eraginkortasuna kaltetzen ari gara jakin gabe... Ni bizirik nago eta kontatu dezaket. Horregatik egiten dut, saihestu daitezkeen gauzengatik beste inork horrelakorik ez izateko".

Esplotazioa eta heriotza eraikuntza publikoan

Manu Robles-Arangiz Fundazioak eta Argia aldizkariak 'Zuloan. Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena' liburua argitaratu dute, Urko Apaolaza Avila kazetariak idatzita. Bertan, orain arte ia ilunpetan zegoen gai bat argitara eraman da: Abiadura Handiko Trena eraikitzeko lanetan dagoen esplotazioa eta horrek, besteak beste, langileentzat dituen ondorio larriak. Igor San Jose ELAk Gipuzkoako eraikuntzan duen arduraduna da.

"Prekarietatea erabatekoa da. Langileek 5 eta 9 euro bitartean kobratzen dute ordua, hitzarmenak ezartzen duenaren erdia kasu askotan. Lanaldiak abusuzkoak dira, egunean 10 eta 12 ordu bitartekoak, eta hortik gorakoak ere maiz. Apenas dute jai-egunik, lanaldia normalean astelehenetik larunbatera izaten baita gehienetan. Eurentzat ez dago ez jairik, ez zubirik, ez oporrik... Aparteko orduak ehunka dira, legeak ezartzen duen kopuruaren oso gainetik. Eta maiz sosik kobratu gabe. Ez dute gaixotzeko eskubiderik, ez eta Aldi-baterako Ezintasuna hartzeko aukerarik ere. Istripu bat badute kalera doaz zuzenean. Esklabo egoeran bizi

dira, baina obra horien arduradun gorenak diren erakundeek nahiago dute begiak ixtea".

Ondorio larriak

Egoera honek ondorio larriak ditu langileentzat. "Abiadura Handiko Trena egiteko lanak hasi zirenetik zazpi lagun hil dira, guk dakigula", dio San Josek. "Argitara atera ez diren istripu asko eta asko egon dira. Tunel batzuetan sartzeko aukera izan dugu, eta egoera beldurgarria da. Lekukoak edo hildakoak daudenean zaila da ezkutatzea, baina tuneletako egoeraren lekuko izan gara, eta auskalo zenbat ezbehar egon diren ezkutuan geratu direnak. Langile baten kasua oroitzen dut; 22 orduz jarraian lan egindakoa zen behin baina gehiagotan, eta paperekin frogatu ahal izan zigun hori. Noski, kasua epaitegietara eraman genuen. Zein Ian osasun eta segurtasun baldintza ditu tunel batean 22 ordu jarraian daraman langile batek? Bertan denbora txiki bat egotea aski da jakiteko obra horiek zein arriskutsuak diren osasunarentzat, mota guztietako hauts eta gai arriskutsuz inguratuta".

Zoritxarrez, Abiadura Handiko Trena eraikitzeko lanak ez dira salbuespena. Uneotan asko dira Euskal Herrian martxan dauden obra publikoak. "Errauskailua eraikitzeko lanetan prekarietate bera bizi dute langileek, esaterako. Edo, beste hainbat adibide jarri ahal genituzke, Deskarga edo Txomin-Enea kasu".



Sigma Brakes, de Tudela

20.000 euros por una vida

Nelia Rodríguez denuncia la falta de una política de prevención y medidas de seguridad en la empresa



Nelia Rodríguez, delegada de prevención de ELA en Sigma Brakes.

20.000 euros es lo que vale la vida de I.M, padre de familia de Citruénigo, de 35 años, que trabajaba en Sigma Brakes, empresa situada en Tudela y dedicada a la construcción de materiales de fricción como pastillas de freno para vehículos.

I.M. falleció el 7 de septiembre del 2016, atrapado por una carretilla elevadora. En febrero de este año, el Gobierno de Navarra sancionó con 20.000 euros a la empresa por este accidente, por una serie de deficiencias y actuaciones incorrectas en materia de prevención de riesgos. Un expediente administrativo que no está cerrado y que podría suponer que la sanción pueda ser menor, incluso.

Nelia Rodríguez es la delegada de prevención de ELA en Sigma Brakes. Una empresa en la que la lucha por la seguridad y la salud laboral está presente desde hace mucho. "Llevamos años denunciando reiteradamente ante Inspección de Trabajo y medios de comunicación los sucesivos incumplimientos de la empresa en materia de prevención de riesgos laborales así como la falta de voluntad para mejorar nuestras condiciones. Las reivindicaciones en seguridad y salud laboral fueron un elemento central en las 16 jornadas de paros y huelga realizadas entre mayo y julio de 2016".

Nelia denuncia que un año y medio después del accidente mortal no ha habido ningún cambio en materia de prevención de riesgos. "Sigue habiendo una actitud totalmente irresponsable y reprochable por parte de la dirección debido a su falta de voluntad en dar prioridad a la seguridad y salud de la plantilla".

El caso de Sigma Brakes es un claro ejemplo de que las muertes en el trabajo y la siniestralidad laboral son consecuencia directa de este modelo que permite la extensión de las condiciones de trabajo precarias. Las empresas, en general, priorizan su beneficio económico inmediato frente a cualquier otro aspecto, poniendo en riesgo la salud y la vida del conjunto de los trabajadores y trabajadoras.

"Sigma Brakes sigue sin aplicar las medidas higiénicas y de seguridad exigibles por ley para el trabajo con productos cancerígenos como es el formaldehído, producto que usamos para hacer las pastillas de freno, detectado hace ya dos años. Y no se cumplen pese a la exigencia de aplicación inmediata por parte de la Inspección de Trabajo. Podríamos estar ante un problema de salud de primer orden. El cáncer es una de las enfermedades con mayor mortalidad, y en Sigma Brakes trabajamos más de 300 personas entre personal propio y de ETTs. El incumplimiento de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales sigue estando a la orden del día, y no hay indicadores de que vaya a cambiar".

Empresa financiada y premiada

Una situación que se agrava por el hecho de que esta empresa ha recibido ingentes cantidades de dinero público. "Entre 2002 y 2016 Sigma Brakes ha recibido del Gobierno de Navarra 2.685.000 euros en subvenciones. Si sólo es multada con unos pocos miles de euros, el balance es claramente favorable a la decisión de pagar las multas y no invertir en prevención", denuncia Nelia. "Es un peligroso mensaje a la clase empresarial", redunda.

Esta delegada concluye con una noticia increíble -visto lo visto- pero cierta: el presidente del consorcio empresarial propietario de Sigma Brakes, Juan Miguel Sucunza, fue galardonado en 2016 como 'empresario del año' de la patronal navarra.

Sobran las palabras.

Prekarietatearen aurrean Eutsi ta tira



Por el derecho a la vida en el trabajo



Navarra alternativa

GORKA QUEVEDO

La primera edición fue en Baiona, en 2013. Dos años más tarde, octubre del 2015, Bilbao cogió el relevo. Ahora le toca a la capital navarra organizar Alternatiben Herria – El Pueblo de las Alternativas. La cita es el sábado 2 de junio, en el Casco Viejo de Pamplona.

Uno de los grandes éxitos del capitalismo es hacernos creer que no hay alternativa al actual sistema. Por eso, con el objetivo de desmentir tal eslogan y demostrar que otro mundo más justo es posible, Iruñea acogerá el sábado 2 de junio una nueva edición de Alternatiben Herria – El Pueblo de las Alternativas.

Será un día de fiesta y reivindicación. Además de las cientos de actividades previstas –mesas redondas, comunicaciones, talleres, documentales, tenderetes, mercado, juegos, animación callejera...–durante todo el día no faltará animación de calle, música o lugares donde comer y beber.

Son muchas las alternativas que existen en Navarra con el objetivo de construir un nuevo modelo económico

y social. Todas ellas tendrán un punto de encuentro común en Iruñea. Para ello se han desarrollado seis barrios o espacios temáticos: Vidas dignas y diversas; AuzoEKOnomia; Arragoa – Bienes Comunes; Pueblos y Tierra—; Soberanía; y la República de los/as niños/as.

El sistema tiene que cambiar

Hay alternativas y están en marcha; es el sistema el que tiene que cambiar. El 2 de junio Alternatiben Herria – El Pueblo de las Alternativas reivindicará un nuevo modelo de sociedad que ponga en el centro a las personas. Para vivir bien, para satisfacer las necesidades de las personas y de los pueblos, para cuidarnos y para cuidar el planeta, para acabar con toda dominación e injusticia. Una cita imprescindible.



Imagen del acto de presentación de Alternatiben Herrian, en Iruñea.

Maitane Unzu Jabat, Alternatiben Herriaren koordinatzailea

"Kapitalismotik deskonektatzeko uste duguna baino gertuago gaude"



Maitane Unzu

Maitane Unzu Jabat Barañainen sortu zen duela 36 urte. Katakrak eztabaida eta pentsamendu gunearen kide da. Orain arte bertako sukaldean aritu da lanean.

»-Nola bizi duzu Alternatiben Herria?

-Ilusio handiz eta gogotsu.
Poliki-poliki geroz eta eragile
gehiagok parte hartu nahi dute
eta gurekin kontaktuan jartzen ari
da. Eta egiten ditugun gonbiteei
erantzuna oso positiboa izaten
ari da. Honek justifikatzen du
guztiz ekimen honen izatea eta
aldi berean gogoz betetzen gaitu
aurrera jarraitzeko. Lan handia
da eta gizarte estresatu honetan

eta denborarekiko menpekoa dena, halako proiektu bat aurrera eramateak, batzuetan mingaina kanpoan dugula garamatza. Baina poza handiz betiere.

»-Nafarroan lantzen diren alternatibetatik zein azpimarratuko zenuke?

-Zaila da bat aukeratzea. Orain bat azpimarratzen badut, duela gutxi haiekin egindako solasaldiak du zerikusia. Baina Gure Sustraiak proiektua aipatuko dut, irabazi asmorik gabeko ekimen sozialeko kooperatiba bat da, ingurugiro eta konpromiso sozial eta ekonomiko handikoa. Pertsona guztiei zuzenduak dauden zerbitzu irisgarriak eskaintzen dituzte.

Momentu honetan, nekazaritza eskola, aterpetxea eta ostatua dute martxan. Haiek esaten dutenez "bizitza proiektua da eta globalizatua den mundu justuago eta bidezkoago bat egiteko konpromisoari erantzuten dio". Ollaranen kokatzen da, Nafarroako mendialdearen eskualdean, Iruñetik 22 kilometrora.

»-Nola txertatu daitezke une honetan martxan dauden alternatiba horiek egunerokotasunean sistema honi aurre egiteko?

-Alternatibak, egunerokotasunerako tresna oso erabilgarriak dira. Beste kontsumo mota bat egiteak, funtsezko erabaki politiko bat du atzean eta gure herrian ditugun alternatibek horri erantzuten diote. Baino eskubide sozialak bermatuko duten produktu justuagoak eskuratzeaz gain, gizartean egoteko modua aldatzen dizute. Nola saretzen zaren beste ekoizle edo sortzaileekin, zein harreman mota sortzen dituzun pertsona eta naturarekin... Jarrera kontziente eta aktibo batek, indarrez betetzen zaitu beste gizarte eredu bat bizitzeko eta sortzeko orduan.

»-Nola animatuko zenuke jendeari ekainaren 2an Iruñera joateko.

-Ekainaren 2an Iruñean batuko gara bai sistemari alternatibak erakutsi, baita jasotzeko ere. Bilbon izan zen bezala, egun handia espero dugu. Beste gizarte eredu bat posible egiteko indarra dugula erakutsiko dugu eta hamaika alternatiba martxan daudela ezagutzeko aukera izango dugu.

Kapitalismotik deskonektatzeko uste duguna baino gertuago gaude eta hilabete hauetan eragile desberdinen elkarlana eta saretzeak emandako fruituak agerian geratuko dira. Erronka handi honetan hau parada bat izango da, baino esparru guztietan indarberritzeko energia mugituko da eta aukera hori ezin da galdu. Iruñera etortzeko aukera izanez gero, aprobetxatu!



Kulturaren txokoa

GABRIEL ZEBERIO

MUSIKA



Kalima Glaukoma

Glaukoma taldea *Kalima* bere laugarren cd-arekin (Bonberenea Ekintzak, 2017) arrakasta handia ari da lortzen. Reggae eta rap aireekin, bata bestearen atzetik hausten dituzte ezarritako egiak: esaterako, generoen banaketa, hain ezaguna egin den Gure kaiola kantan: "Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan dezala Beeee Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo danak hausten.

Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola zalantzan jartzen".


Salatu egiten dute ere migranteen patua eta atzerritarrekiko gorrotoa Fire (they're commin) abestian: "Klase berbereko batek beldurra emate al dik?

Egiz mozorrotutako Troiako zaldik. Xenofobia kriminala zuritzeuen esaldik.

Pobreak gerran, anai-arreben erahilketan. (...) Kontuz hitzekin, ta etsaiez konfunditzeakin. (...). Denok etorkin, denok esklabo, denok berdin Historiako terroristaik haundina dan kapitalismoakin."

Glaukoma izena dute, baina ez dira itsuak. Tarte gozagarria igarotzeko eman digute, bide batez geure burua eta uste batzuk astinduz.

LITERATURA




El hambre Martín Caparrós

El escritor argentino Martín Caparrós refleja en su libro El hambre (ed. Anagrama, 2015) los paisajes de la miseria (India, Bangladesh, Argentina, Níger...), en un viaje por todo el mundo que trata de poner en evidencia las causas del hambre. La tesis se repite en el libro: No es que falte comida en el planeta, sino que sobra injusticia. El autor recoge una frase de Helder Cámara: "Cuando le doy de comer a la gente me dicen santo. Cuando pregunto por qué no tienen comida me dicen comunista".

Y aunque el doloroso itinerario de *El hambre* puede hundir en el mayor desánimo a más de uno o una, Caparrós no se resigna: "Los grandes momentos de la cultura se producen cuando el egoísmo de miles consiste en decidir que deben hacer algo por los otros (...) pensar cómo sería un mundo que no nos diera vergüenza o culpa o desaliento –y empezar a imaginar cómo buscarlo—".

ZINEMA



Le Havre Aki Kaurismäki

Aki Kaurismäki zuzendari finlandiarrak jende arrunt eta azpiratuaren erretratua eman izan digu bere filmeetan (Poxpolo fabrikako neskatila, Ariel...). 2011ko Le Havre luzemetrajean ildo horri jarraitzen dio. Argi eta kokaleku berezietan, pertsonaje maitekorrak aurkezten dizkigu: Marcel Marx oinetako garbitzailea (André Wilms) Le Havren bizi da, munduko jende askorentzat paradisua omen den Erresuma Baturako atarian... Portuan topatuko du poliziarengandik ihesi doan Idrissa mutiko afrikarra (Blondin Miguel), eta aterpea emango dio.

Pertsonaje guztiek, baita Monet poliziak (Jean-Pierre Darroussin) ere, badute beren gizatasuna. Kaurismäkik filme honetan erakusten digu ezer gutxi duen jende xehea, baina elkarrekiko kezka agertzen dakiena.

Greba kutxarik gabe, sindikaturik ez

Kutxa ala sindikatua, zer zen lehenago?

IVÁN GIMÉNEZ

Azken hilabetetako albisteak ikusita, edonork pentsa dezake ELA sindikatuak greba-kutxa asmatu zuela orain dela 40 bat urte, ezerezetik, ikerketa eta berrikuntza kontzeptua sindikalgintzara ekarriz. Ba, ez. greba-kutxa ez da ELAren asmakizun bat, eta ELAren erresistentzi-kutxa ez zen 1978an sortu, baizik eta askoz lehenago.

- "Langilea, bakarrik, ez da ezer, baina batzen bagara indarra izango dugu. Gatazka modu txarrean bukatuko da; grebara joan beharko dugu, eta horretarako diru-funtsa sortu behar da. Une batean, greba-kutxa bihurtuko da. Zenbat eta diru gehiago bildu, orduan eta denbora luzeagoz eutsiko diogu grebari".

Hau ez da aurtengo elkarrizketa, adibidez Bizkaiko Erresidentzien langile batek esana... Baina, segi dezagun irakurtzen...

- "Kuotak biltzea zailena da: urtean 50 zentimo funts orokorrerako, eta bi libera atal sindikalerako... Gehiegi da, inork ez du ordaindu nahi izango".

Zentimo? Libera? Zer da hau? Itxoin, itxoin...

- Mundu berri bat sortu behar da, justuagoa, gure lege propioak indarrean jartzeko.



Germinal filmaren irudi bat.

Nondik atera da esaldi borobil hau? *Germinal* pelikula ikusteko aukera badaukazue, bertan entzungo duzue, greba bat hasi baino lehenago. Filma 1993koa bada ere, Emile Zolaren eleberri batean oinarrituta dago, eta istorioa kokatzen da 1864 eta 1884 urte artean, hain justu, Frantziako sindikatuak legeztatu baino aurreko greba handietan. Hau da, erresistentzi-kutxaren sorrerak gutxienez 150 urte dauzka, eta munduko literaturaren klasiko batean langileentzat ezinbesteko tresna bezala aldarrikatzen da.

Are gehiago, sindikatuak sortzeko –edo legeztatzeko– grebetan erresistentzi-kutxa erabili baldin bazen, horrek frogatzen du kutxa sindikatua baino zaharragoa dela. Hau da, kutxarik gabe, sindikaturik ez. Non geundeke gu?

ELAk nahiko goiz ikasi zuen horren garrantzia. Bigarren Errepublikaren garaian ELAren hainbat atal sindikalek erresistentzi-kutxaren araudia zeukatela dokumentatuta dago. Adibidez, Zubiriko solidarioak: sindikatzeko kuota hileko 2,50 pezetakoa zen, eta kopuru horretako pezeta bat erresistentzi-kutxara bideratzen zen –gaixoek eta langabetuek ez zuten ordaindu behar–. Greba baten laugarren egunetik aurrera, larunbatero 4 pezeta kobratzen zuten. Guardia Zibilak atxilotu zituenentzako laguntza ere bazegoen.

Jakina denez, sindikalismo historikoaren irakaspenak barneratuz, 1978an ELAk gaur ezagutzen dugun erresitentzi-kutxaren sorrera erabaki zuen, eta afiliatu bakoitzak bere kuotaren %25 funts horretara bideratzen hasi zen.

Gaur arte. Edo hobeto esanda, *Germinal* eleberrian aldarrikatzen zen bezala: "Mundu berri eta justuago bat lortu arte". \(\triangle \)





Aldizkari hau papera eta prozedura jasangarriekin egin da / Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles Frankeo itundua / Franqueo concertado nº 08/129 Zk